

ZIOEN ADIERAZPENA

Gazteek ezaugarri jakin batzuk dituzten etxebizitzak alokatzeko laguntza ekonomikoak jaso ahal izateko bete beharreko baldintzak arautzen ditu Ordenantza honek. Diru-laguntzen Lege Orokorrak eta Basauriko Udalaren Diru-laguntzak Emateari buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa aintzat hartuta egindako testua da.

Finean, Ordenantzaren helburua zera da: sustatzea gazteek, batez ere, Basaurin alokairuzko etxebizitza lortzea, beren emantzipazio-prozesuan aurrera egin, eta aukera izan dezaten berezko bizi-proiektua garatzeko.

I. KAPITULUA: BALDINTZA OROKORRAK

1. artikulua- XEDEA

Ordenantza honen abiapuntua da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen amaierako laugarren xedapena, zeinak dioen administrazio publikoek alokairua sustatu behar dutela etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak dituzten gizarte-kolektiboen artean. Horren harira, etxebizitza alokatzeko diru-laguntza jaso dezaketenek bete beharreko baldintzak, laguntza horien zenbatekoak eta bestelakoak arautzen dira hemen.

Aurreikusitako laguntzek, beraz, ohiko etxebizitza izango denaren alokairuaren zati bat ordainduko diete 18 eta 35 urte bitarteko gazteei, baldin eta egiaztatzen badute etxebizitza alokatzeko kontratua sinatu dutela, eta kontratu hori indarrean badago laguntza-eskabidea aurkezten duten ekonomia-ekitaldian.

2. artikulua.- ORGANO ESKUDUNA

Udalbatza da Ordenantza hau onesteko eskumena duen organoa. Hala xedatzen dute Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 9. artikulua, eta Lege bereko II. tituluko 36. atalak (zeinak gazteria-politiken plangintza, ordenazioa eta kudeaketa arautzen baititu). Hartara, Ordenantza izapidetuko da Toki Araubideak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 legeak xedatutako moduan.

3. artikulua.- ARAUDI APLIKAGARRIA

Ordenantza honek eta berau onesteko unean indarrean dagoen legeriak finkatuko dituzte bai diru-laguntzak emateko irizpideak, bai onuradunaren eta laguntza-

emailearen arteko harreman juridikoa. Ordenantza honetan xedatutakoaz gain, beraz, honako hauek ere arautuko dituzte alokairurako diru-laguntzak:

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

Diru-laguntzen Araudi Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretu bidez onetsia.

Basauriko Udalaren Diru-laguntzak Emateari buruzko Ordenantza Orokorra (2005/01/01).

Etxebideren araudia: Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruen alorreko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretua, eta hura garatzeko aginduak.

Gizarte-larrialdietako Laguntzei buruzko araudi autonomikoa.

Aldizkakoak ez diren udal diru-laguntzak emateko udal oinarriak.

4. artikulua.- ONURADUNAK

Indarreko aurrekontu-ekitaldiaren kontura diren laguntzak jaso ahalko dituzte Udal Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko datan, eta diruz lagun daitekeen aldian zehar, honako baldintza espezifiko hauek betetzen dituzten norbanakoek edo elkarbizitza-unitateek:

a) Errentamendu-kontratuaren titularrak 18-35 urte izatea. Salbuespena: bizikidetzaren unitatearekin bizi, eta Basaurin erroldatuta dauden mendeko adin txikikoak (udal zerbitzuek baldintza hori betetzen dela egiaztatuko dute). Errentamendu-kontratuan, titularraz gain, harekin biziko direnak agertu behar dira —izan ahaide ala ez—.

b) Kontratuaren titularrak ez diren pertsonak baldin badaude etxebizitzan erroldatuta diruz lagundutako kontratuaren hasiera-data baino lehen, diru-laguntza epean zehar pertsona horiek Biztanleen Udal Erroldan bajaran emateko eskabidea egin beharko dute bai erroldatuek beraiek, bai etxebizitzaren jabeak.

c) Eskatzailea edota elkarbizitza-unitatearen kideetako bat Basaurin erroldatuta egotea. Horren harira, eskatuko da pertsona hori, azken bost urteotan, urtebetez jarraian erroldatuta egon izana udalerrian, edota, etenak tarteko, hiru urtez erroldatuta egon izana. Deialdia BAO-n argitaratzen den datatik hasiko dira zenbatzen aipatutako epeak.

d) ETXEBIDE Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan izena emanda egotea, Basaurin etxebizitza eskuratzeko.

e) Onuradunak, edota, hala badagokio, bizikidetza-unitateak, 25.000 €-ko gehienezko, eta 12.000 €-ko gutxieneko diru-sarrera haztatuak izatea. Hala jasotzen da ETXEBIDE Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren araudian (une honetan, itxitako azken zerga-ekitaldiko datuak daude erregistro publiko horretan).

f) Onuradunak eta bizikidetza-unitateko kide guztiek (horrelakorik badago), Basauriko Udalaren zerga, tasa, ariel eta zehapen guztiak ordainduta izatea. Horren guztiaren erantzukizunpeko aitortpena jasoko da eskabide-ereduan.

Era berean, alokairurako urtebeteko diru-laguntza lortzen dutenek ezingo dute hura berriro eskatu hurrengo ekitaldietan: behin baino ez da emango.

g) Errentamenduan hartutako etxebizitza bizikidetza-unitatearen ohiko eta etengabeko etxebizitza izatea, edo etorkizunean halaxe izatea. Etxebizitza okupatuta dagoela joko da baldin eta urtean, gehienez ere, hiru hilabetez jarraian hutsik ez badago (bidezko arrazoirik tarteko ez bada).

h) Bizikidetza-unitateko kideetako batek ere ez izatea bigarren gradurainoko odolkidetasunezko edota ezkontzazko ahaidetasunik etxebizitzaren errentatzailearekin; haren bazkide ez izatea; edota errentatzailea den pertsona fisiko edo juridikoaren kide edo parte-hartzailea ez izatea. Hori guztia egiaztatzeko, nahikoa izango da erantzukizunpeko aitortpena aurkeztea.

5. artikulua.- ETXEBIZITZEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Laguntza eskatzen duten errentariek alokairuan hartutako etxebizitzek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Alokaturako etxebizitza Basauri udal mugartean egon behar da.

- Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren III. eta IV. eranskinek eraikuntzari, egiturari eta bizigarritasunari buruz jasotako baldintza orokorrak bete behar ditu etxebizitzak.

- Sukaldean, altzariez gain, kozinatzeko plaka, aska, garbigailua, hozkailua eta erauzgailua egon behar dira; eta komunak, berriz, komunontzia, konketa eta dutxa edo bainuontzia izan behar ditu. Horiek guztiek egokiro funtzionatu behar dute.

Laguntza hauetatik kanpo geratuko dira honako hauek:

- Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak.
- Azpierrentamenduak.
- Gelen errentamenduak (bizitantze-eskubidea).
- Etxebizitza gisa erabilitako lokalak.
- Bizigune eta ASAP programen barruan dauden etxebizitzak.
- Hilean 550 €-koa baino alokairu handiagoa duten etxebizitzak.
- Ez dira onartuko urtebete baino gutxiagoko kontratuak.

II. KAPITULUA: ESKABIDEAK

6. artikulua.- ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Diru-laguntzen Lege Orokorraren 14. artikulua eta Basauriko Udalaren Diru-laguntzak Emateari buruzko Ordenantza Orokorrak jasotakoez gain, honako betebeharrak izango ditu onuradunak:

- Diru-laguntza baliatzea hura eman zen xede zehatzerako.
- Basauriko Udalak eskatutako informazio osagarri guztia aurkeztea.
- Diru-laguntza emateko aintzat hartutako inguruabarretan gertatutako edozein aldaketa jakinaraztea.
- Errentamendu-kontratuan adierazitako etxebizitzan erroldatzea.

7. artikulua.- ESKABIDEAK AURKEZTEA: MODUA, TOKIA ETA EPEA

Diru-laguntza hau eskuratu nahi dutenek, Ordenantza honi erantsitako eskabide-eredua aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta. (I. eranskina: eskabide-eredua).

Eskabide horretan erantzukizunpeko edota zinpeko aitorpena egingo dute, adieraziz onuradunak eta bizikidetzak-unitateko kide guztiek ordainduta dituztela Basauriko Udalaren zergak, tasak, arielak eta zehapenak.

Horrez gain, eskatzaileak, bere eskabidean, erantzunkizunpeko aitorpena egingo du, adieraziz ez daukala Basauriko Udalaren Diru-laguntzak Emateari buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan ezarritako debekurik.

Eskabidearekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du interesdunak:

1.- Etxebizitzaren alokairu-kontratua, indarrean dagoena eta diruz lagundutako epeari dagokiona. Kontratu horrek URTEBETeko iraupena izan beharko du, gutxienez, eta dagokion urtearen urtarilaren 1aren ostean sinatuta egon beharko da. Errentamendu-kontratuan, titularraz gain, harekin biziko diren pertsona guztiak agertu beharko dira — izan ahaide ala ez—.

Kontratua erregistratuta egon beharko da Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Lurralde Ordezkaritzan.

2.- Zinpeko aitorpena, non honako hauek jasoko diren: hala badagokio, beste diru-sarrera batzuk badaudela (ETXEBIDEn jasotakoak ez direnak; eta, bereziki, 4. atalean adierazitakoak), eta horien zenbatekoa; edota beste erakundeetan egindako diru-laguntza eskaerak.

3.- Hirugarrenaren fitxa, beteta (II. eranskina).

4.- Eskatzaileak, bete beharreko orrian, Udalari eta Bidebi Basauri SLri baimena emango die honako hauek egiaztatzeko:

- ETXEBIDE Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan izena emanda dagoela, Basauri udalerrian.
- Eskatzaileak eta, kasua denean, familia-unitateko kide diren guztiek dagokion urtean jasotako pentsio, nomina edo diru-sarreraren egiaztageria. Horrekin batera, hala badagokio, eskabidea egin den urtearen aurrekoari dagokion pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aitorpena.
- Dagokion urtean jasotako bekak edota bestelako prestazioak (Gizarte-ongizatearenak barne).
- Hala badagokio, eskatzaileak zein bizikidetz-unitateko edozein kidek Lanbidetik jasotako etxebizitzarako prestazio osagarria, edota etxebizitzarako prestazio ekonomikoa.
- Onuradunak edota eskatzailearekin bizi den zein biziko den edozen pertsonak eskatutako gizarte-larrialdietarako laguntzak edota iraunkorrak ez diren Basauriko Udalaren laguntzak.
- Eskatzailea eta harekin bizi direnak Basaurin eta etxebizitza horretan erroldatuta daudela egiaztatzen duen agiria.

EPEA:

Eskabideak honelaxe aurkeztuko dira:

2018. urtea: azaroan zehar.

Hurrengo urteetan: maiatzean, alegia, Basauriko Udalak diru-laguntza hauek ordaintzeko aurrekontu-partida esleitu duen ekonomia-ekitaldi bakoitzeko maiatzean.

TOKIA:

Eskabideak aurkeztu ahalko dira Basauriko Udalean (Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan), Bidebi Basauri SLren bulegoetan, edota Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak aurreikusitako edozein modutan.

8. artikulua.- AKATSAK ZUZENTZEA

Aurkeztutako dokumentazioan akatsik badago, edo zerbait falta bada, interesdunek HAMAR EGUNeko epea izango dute akatsak zuzentzeko edota falta den hori aurkezteko. Epea zenbatzen hasiko da antzemandako akatsak zuzentzeko edo falta dena aurkezteko errekerimenduaren jakinarazpenaren dataren biharamunean. Epe hori igarota ez badira akatsak zuzendu edota dokumentazioa osatu, eskatzaileak atzera egin duela joko da, eta artxibatu egingo da prozedura. Hori baino lehen, baina, ebazpena emango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua jasotako moduan.

III. KAPITULUA: DIRU-LAGUNTZA EMATEA

9 artikulua.-DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Diru-laguntza, gehienez, diruz lagun daitekeen zenbatekoaren % 50ekoa izango da. Muga: 275 €, hileko eta eskabideko. Bestalde, gehienez ere, urte natural baterako emango da (hamabi hilabete, hamabi ordainketa).

Ordenantza honetan xedatutakoa betetzeko, alokairutik kanpo geratuko dira garajeari, komuniteari eta administrazioari dagozkion gastuak, bai eta kontribuzioak eta arielak ere. Horiek guztiak ez dira aintzat hartuko, errentamendu-kontratuan berariaz jasota egon arren.

Garajea erabiltzeagatiko edo komunitateko gastuak kontratuak jasota egon, eta horien hileroko kostuaren berariazko egiaztagiririk aurkezten ez bada, alokairutik 30 euroko balio finkoa kenduko da hileroko, gastu horiek direla eta.

10. artikulua.- LAGUNTZAK ORDAINTZEA

Diru-laguntza ordainduko da eskabideak aurretiaz aldeko ebazpena jaso eta gero, eta, betiere, onuradunak errenta ordaindu izana egiaztatu eta gero —alegia, errentatzaileari banku-transferentzia egin izanaren egiaztagiria aurkeztu eta gero—.

Laguntzak eskatzeko, I. eranskinean jasotako ereduak bete beharko da, eta 7. artikuluan adierazitako dokumentazioa erantsi.

Eskatzaileek aukera bi izango dituzte: laguntza-eskabidea aurkeztu eta, aldeko ebazpena jasotzen badute, ordainketak eskatzea, goian adierazitako moduan; edota laguntza-eskabidea aurkeztea dagokion dokumentazioarekin eta, aldi berean, ordura arte ordaindutako alokairu-ordainagiriak eskatzea.

Laguntzaren zenbatekoa izango da data horretara arte zuritutako alokairu-gastuei dagokiena, alegia, ordura arte errentatzaileari alokairu gisa ordaindutakoa.

Aurrekontu-partidan kontsignatutakoa agortzen bada ekonomia-ekitaldia amaitu baino lehen, eta, Ordenantza honetan finkatutako baldintzak beteta ere, eskabideak badaude ebatzi gabe, udalak aurrekontu-kontsignazioa handitu ahalko du, horretarako aukera baldin badago.

Diru-laguntza ordaintzeko epe gisa finkatzen dira, diru-laguntza eskabidearekin batera egindakoez gain, xede horretarako aurrekontu-partida dagoen ekitaldietako uztailaren 1etik 15era artekoa eta abendauren 1etik 15era artekoa.

Diru-laguntza emateko eta hura ordaintzeko tartean onuradunak beste laguntza batzuk eskuratu, eta horiek diru-laguntza honekin bateraezinak badira, edota onuradunaren baldintza pertsonalak edo familiarrak aldatzen badira eta Ordenantzak ezarritako baldintzak betetzen ez badira, baliogabetu egingo da diru-laguntza, aurretiaz espediente berrikusi eta gero.

11 artikulua.- BATERAGARRITASUNA BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN

Alokairurako diru-laguntzak bateragarriak izango dira xede bera duten beste laguntza batzuekin, baldin eta laguntzok, guztira, ez badute gainditzen diruz lagun daitekeen errentamenduaren % 50.

Testuak berariaz baztertzen ditu Bizigune edo ASAP programen bidez alokatutako etxebizitzak dituzten gazteak.

Dena dela, gizarte-bazterkeriari eta egoera larriei aurre egiteko Basauriko Udalak ematen dituen banakako diru-laguntzak jaso ditzaketen gazteek ere jaso ahalko dute alokairurako diru-laguntza, ez bada banakako diru-laguntza horietan etxebizitzarako laguntza jaso dutela ja, alokairurako diru-laguntza jaso behar duten ekitaldi berean.

Era berean, alokairurako udal diru-laguntza bateraezina da DSBeri lotutako etxebizitzako laguntza osagarriarekin edota etxebizitzarako laguntza ekonomikoarekin (zeina Eusko Jaurlaritzak ematen baitu).

Ordenantza honek alokairurako emandako laguntzek izaera osagarria izango dute, diruz lagun daitekeen gehienezko zenbatekoaren % 50eraino (laguntza bat baino gehiago badira, horien kopuru osoari dagokio aipatutako muga).

12 artikulua.- FINANTZIAZIOA

Udal Aurrekontu Orokorrean alokairurako laguntzak finantzatzera bideratutako kreditu-aurrekontuetatik etorriko dira diru-laguntza horietarako baliabide ekonomikoak.

Basauriko Udalak dagokion aurrekontu-partida izango du, eta laguntzak emango ditu egoki denean. Inola ere ez da gaindituko aurrekontuan horretarako kontsignatutako urteko kopurua.

IV. KAPITULUA: PROZEDURA

13 artikulua.- Eskumena duen udal organoak edota Bidebi Basauri SLk, epe barruan aurkeztutako eskabideak aztertu, eta egiaztatuko dute Ordenantza honetan finkatutako baldintzak betetzen dituztela. Baldintzak betetzen direla ziurtatu ostean, ebazpen-proposamena egingo dute, eta proposamen hori Lurralde-politika eta Kontratazioko Informazio Batzordera eramango da, hark bere oniritzia eman dezan.

14 artikulua.- Lurralde-politika eta Kontratazioko Informazio Batzordeak, proposamena aztertu eta gero, saiora bertaratutakoen gehiengo soilez (gutxienez) eman beharko dio oniritzia proposamenari.

Eskabideak aurkeztu, eta horien espedienteak aurretiaz aldeko fiskalizazioa jaso eta gero, Alkatetzak onetsi ala ezetsi egingo ditu eskabideak.

Laguntzak ordaintzea ere Alkatetzak xedatuko du, programaren arduradunak eta Lurralde-politika eta Kontratazioko ordezkariak aurretiaz proposamena egin eta gero,

eta errentamenduaren ordainagiriak aurkeztu ostean. Ordainketa horiek, bestalde, honako aldi hauetan zehar eskatu edota egingo dira:

-Horretarako aurrekontu-partida dagoen aurrekontu-ekitaldi bakoitzeko uztailaren 1etik 15era, eta abenduaren 1etik 15era.

-Diru-laguntza eskabidearekin eta errenta ordaindu izanaren egiaztagiriek batera izango da, hau da, ekonomia-ekitaldi bakoitzeko maiatzaren 1etik 31ra bitartean.

V. KAPITULUA: DIRU-LAGUNTZAREN KONTROLA

15 artikulua.- Beharrezkotzat jotako agiriak aurkezteko eskatu ahalko die Basauriko Udalak onuradunei. Bestalde, Udal Zerbitzuek eta Bidebi Basauri SL Udal Sozietateak etxebizitzetara joan, eta horiek ikuskatu ahalko dituzte, eta udal datu-baseak kontsultatu, egiaztatze Ordenantza honek ezarritako baldintzak betetzen direla.

16 artikulua.- Onuradunek, beren aldetik, Basauriko Udalak eta Bidebi Basauri SLk beren fiskalizazio-lana aurrera eramateko eskatutako dokumentazio guztia aurkeztuko dute.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza hau indarrean egongo da berau aldatu edota indargabetu arte.

AZKEN XEDAPENA

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da Ordenantza honen behin betiko onespeneraren testua, eta eragina izango du ekonomia-ekitaldi bakoitzeko urtarrilaren 1ean.

Ordenantza honetan aurreikusi ez diren kontuetarako, honako hauetara joko da: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2001 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 EDak onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorra; eta Basauriko Udalaren Diru-laguntzak Emateari buruzko Ordenantza Orokorra (2005/01/01).